

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Esan dugun bezala, On.line, parabrising metodoarekin, karteekin eta txosnetan erantzundako galderen bitartez familiak erakartzeko aukera izango dugu. Instalazioei dagokionez, aisialdiko gunearen parean gurasoek taberna bat izango dute, non ispilu baten zehar haien haurrak ikusteko gai izango dira, eta gure ustez honek haiek izan ahal dituzten zalantzen aurrean erosotasuna emango diete. Hurrei dagokionez, behar bereziak daukaten eta ez daukaten hurrek zaintzeko gai egongo gara egokiak diren baliabideekin. Klasean erabilitako hainbat jostailu salduko ditugunez, hurrek etxean jarduerak jarraitzeko aukera izango dute. Ekonomia-arazoak duten familiei laguntza ekonomikoa emango genien ere eta honekin bezeroak gurekin denbora asko geldi dadin espero dugu.

Honez gain zerbitzu automatizatua eskainiko dugu, non bezeroak gure webgunean informazio guztia lortzeko gai izango dira lokalera etorri beharrean, eta gure produkturen bat erosi nahi baldin badute ere aukera izango dute webgunetik erosteko dendara joan beharrean.

